



ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

GAUTENA

GUIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA



Jarduera Txostena
2015



AURKEZPENA

2

1.- ZERBITZUAK

4

1.1.- DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUA

4

1.2.- HEZKUNTZA ZERBITZUA

4

1.3.- EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

6

1.4.- ETXEBIZITZA ZERBITZUA

7

1.5.- FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA ELKARTZE EKINTZAKO ZERBITZUA

8

2.- 2015. URTEKO MUGARRIAK

9

3. URTEKO KONTUAK

22

3.1. EGOERAREN BALANTZEA

22

3.2. EMAITZEN KONTUA

23



Urtero bezala, Elkaratearen Urteko Memoria aurkeztera gatoz; 2015ekoa, oraingo honetan.

2015. urtea 2012-2015 Plan Estrategikoko azkena izan da. Elkarateak bere zeregina ohiko parametroen arabera gauzatzen jarraitu du, Gipuzkoako gizarteak sufritzen jarraitzen duen krisialdi-egoera orokorraren ondorioak guztiz saihestu ahal izan gabe, nahiz eta izan badiren etorkizun hurbilari dagokionez nolabaiteko baikortasuna eragiten duten adierazleak.

Elkarateak kudeatzen dituen **zerbitzuei** dagokienez, honako hauek azpimarra ditzakegu:

Diagnosticako eta Tratamendu Zerbitzuak jarraitzen du administrazio publikotik bideratutako kasu kopuru gero eta handiagoa jasotzen. 18 urtetik beherakoen kasuan, 506 familia inguruk jasotzen dute zerbitzu horren laguntza. 143 pertsonak, adin guztietakoek, izan zuten 2015ean beren lehen harremana GAUTENArekin. GAUTENAK 2015ean behin baino gehiagotan jo du Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunengana, arlo horretan sortzen ari den beharrian gero eta handiago hori dela-eta, baina momentuz ezin izan da eskura dauden bitartekoen hobekuntzarik zehaztu.

Hezkuntza Zerbitzuak gela bat gehiago eskuratu du, eta dagoneko hemezortzi gela egonkor kudeatzen ditu GAUTENAK, guztiak ikastetxe publiko nahiz itunduetan. 2015. urte amaieran, GAUTENAK 95 ikasle eskolatzen zituen zuzenean.

Eguneko Arreta Zerbitzuak Azkarate Enea eraikinean eskaintzen zituen plazak lekualdatu ahal izan ditu, Donostiako Benta Berri auzoko Simona Lajust kalea 4, behea helbideko Komunitatean Integratutako Unitate berri batera, udal kiroldegiaurreko oinezkoen kale batean. Instalazio horrek Integratutako Unitateetako plazen eskaintza zabaltzeko aukera eman digu, horiei onura atera diezaieketen beharrian-profilitentzat. Aurrerapauso positiboa da zalantzarik gabe, eta

etorkizun hurbilean jarraitutasuna izatea espero dugu. Eguneko Arreta Zerbitzuak 103 pertsona helduri ematen die laguntza.

Etxebizitza Zerbitzuak sei etxebizitzatako 70 plazako edukierari eutsi dio, bere baitan hamabi bizikidetza-unitatetan banatuta, aldi berean. Hala, plaza berriak irekitzeko beharra egiaztatu da. Bada Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean formalki ezarritako itxaron-zerrenda bat, eta, halaber, zenbait beharrian gehigarri ere identifikatu ditugu, askotariko arrazoiengatik – AEN duten pertsonen adina, esate baterako – eskabidea formalki ezartzea lortu ez dutenak. Espero dugu gutxi barru horiei erantzuna emateko gai izatea.

Helduentzako Zerbitzuek –Egunekoek eta Etxebizitzakoek– behin baino gehiagotan eskatu diete Aldundiari eta Udalei horiek lurraldeari dagokionez deszentralizatzeko, baina momentuz ezin izan da halako hedatzerik zehaztu.

Familiei Laguntzeko Zerbitzuak Aldunditik jasotzen duen finantzaketa areagotu egin da bi arlotan. Alde batetik, aldi baterako egonaldietarako «Atsedean» zerbitzuan, eta bestetik, zerbitzurako langile berri bat kontratatu ahal izan delako. Urteko azken hilabeteetan zerbitzu horren jarduketa birformulatu da, eta harentzako hiru hartzaile nagusi zehaztu ondoren –Autismoaren Espektroko Nahasmena duen pertsona, familiak eta elkarate–, Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzua izena hartu du. 2015ean ere baliabide publikoak gaitu ziren Irun-Bidasoa eremuan aisialdi-jarduerak indartzea helburu duen ezohiko plan baterako.

Instalazioei dagokienez, 2015ean **Benta Berri Eguneko Unitate berria** ireki zen apirilean, eta ondoren Azkarate Enea eraikineko lehen solairuaren berritze-lanei ekin zitzaion. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak bere gain hartu zuen haren kostuaren funtsezko finantzaketa. Horrela, toki egoki bat gaitzea lortu da, Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuari zuzendua



nagusiki. Hainbat bulegori eta elkartu daitezkeen bi bilera-gelari esker, zerbitzuaren baldintzak hobetuko dira, tokia, funtzionaltasuna eta berotasuna irabazita.

GAUTENAK 2015ean bere lan-ildoei eutsi die honako hauetan: kalitatearen alorrean –**EFQM eredia eta FEAPS eredia / Erabateko Inklusioa**–, bere jarduketan ardatz etiko bat aplikatzean, Talde Profesionalaren eraketan,

esparruan (Gipuzkoako Foru Aldundia), bai eta udaletan ere. Abenduaren 23an, goi-mailako lehen instituzio-harremana gauzatu zen foru-talde berriarekin, 2016-2019 legeintzaldirako lankidetzaz bideratze aldera.

Urteko bigarren seihilekoan, GAUTENAK gogoeta estrategikoko prozesu bat abiarazi du, laugarren **Plan Estrategikoari (2016-2019)** forma emateko. Oraingo honetan, Zuzendaritza



«Guraso Eskola» Familien Prestakuntzarako programan, eta I+G+b ekimenetan lankidetzalerro bati eutsita.

Erakundeekiko harremanei dagokienez, urtean zehar GAUTENAK aktiboki jarraitu du **hainbat foro eta erakundetan parte hartzen**: Gipuzkoan toki- eta lurralde-mailan, FEVAS Plena Inclusión Euskadi erakundean parte hartuta, eta Confederación Autismo España eta Plena Inclusión (FEAPS) erakundeekiko lankidetzan. Era berean, Autismo Europa elkartean parte hartzen jarraitu du, eta, besteak beste, maiatzaren 2an Bartzelonan izandako Batzar Nagusira bertaratu zen.

Urtero bezala, harreman estua eduki dugu **administrazioetako arduradunekin Osasun eta Hezkuntza arloetan (Eusko Jaurlaritzak) eta Gizarte Politikaren**

Batzordeak –familiek osatua– eta Batzorde Zuzendariak –profesionalek osatua– elkarrekin egiten duten lanaz gain, familien ordezkariak osatutako «foku-talde» bat identifikatu da (Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak izan ala ez), aipatutako gogoeta-prozesuan modu demokratiko eta parte-hartzaileagoan sakontze aldera. Eraitza hori barne-adostasunaren eta partaideek egindako ingurunearen azterketaren ondorio da.

Azkenik, GAUTENAK **laguntza eskertu nahi dio Euskadiko administrazio publikoari** –Gizarte Politikako Departamentuari (GFA), Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailei–, bai eta udalei, KUTXako Gizarte Ekintzari eta gure elkartearen sostengu ekonomikoa ahalbidetzen duten enpresei eta partikularrei ere.



I.- ZERBITZUAK

1.1.- DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUA

- Osasun Sailaren txosten baten arabera, 127 kasu berri diagnostikatu ziren, 18 urtera arteko pertsonen artean, 2015ean. Guztira, **143 pertsonak eduki zuten lehenengo harremana GAUTENArekin**. Horietatik guztietatik, % 70 inguru Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzuan sartu ziren.

- GAUTENaren Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua Zumarragan, Eibarren, Arrasaten eta Donostian eskaini da 2015ean ere, mediku psikiatra batek eta 6 psikologok osatutako talde bati esker.
- Banakako eta taldeko esku-hartzeaz gain, aurtun **familia-taldeekin egindako esku-hartzeak** gauzatzen hasi dira, bereziki Asperger duten pertsonen familietan.



Zumarragako Antio Baseliza

1.2.- HEZKUNTZA ZERBITZUA

- 2015ean, **gela berri bat ireki da Erreterian**, Gurutzeko Alabak ikastetxean. Gela horren bidez, Oarsoaldeko ikasleei jarraitutasuna ematea espero da: lehen hezkuntzan Bizarainen (lehenengo Langaitzen) ibili eta gero, bigarren hezkuntzan ikasketa horien gunean kokatutako gela horretara pasako baitira.
- Udan, entitate titularrak lagata, bainugela bat egokitu genuen, ur beroko dutxa eta ohatila batekin, behar dutenek garbiketarako eremu eroso bat izan dezaten.
- Zentroko talde osoak oso harrera ona egin die iritsi berri diren gure bost ikasleei eta haien irakasleei, eta horri esker egokitzapena oso azkarra izan da guztientzat.
- Hezkuntza Zerbitzuko ikasleak gero eta gehiago dira. 2104-2015 ikasturtea 91 ikaslerekin amaitu genuen. 2015-2016 ikasturte honetan, guztira **95 ikasle daude ikasgela egonkorretan**; horietatik zortzik beren ikastetxean eta ikasgela egonkor batean banatzen dute beren eskolatzeko aldia.



Hezkuntza Sailaren bidez, harreman sarria izaten jarraitzen dugu Berritzeguneekin ikasleen orientazioari eta segimenduari begira. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako eta Lakuako Hezkuntza Berrikuntzako arduradunekin elkartu gara hainbat aldiz, ikasgela egonkorretan egiten den lana nahiz hark helburu dituen ikasleak argi eta garbi zehazteko helburuz.

Profesionalak trebatzeko jardueri dagokienez, logopeda baten gidaritzapean diharduen taldeak jarraipena izan du 2015ean ere. Talde horretan, gela egonkorretako ikasleen kasuak aztertzen dira, arreta komunikazioan jarrita. Ondoren egindako ebaluazioaren arabera, gogobetetasuna erabatekoa izan da eta, horregatik, datorren urtean antzeko eskema batekin jarraitzea pentsatu da, baina jokaera disruptiboen alorrean lan eginez.

2015-2016 ikasturte honetan, **27 pertsonak egin dituzte praktikak ikasgela egonkorretan**. Honako zentro hauetatik etorri dira: Mondragon Unibertsitateko Irakasle Ikasketak; EHUKo Irakasle Ikasketak; EHUKo Pedagogia; Errioxako Nazioarteko Unibertsitateko

Irakasle Ikasketak; eta Tolosako Lagundi Sortzez Garbia, Andoaingo Leizaran, Bergarako Mariaren Lagundia eta Nazaret ikastetxeetako Goi Mailako Gizarteratze Modulua. Baita Easo Institutuko Haur Hezkuntzako Modulutik, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Inklusioko Masterretik eta Valentziako Unibertsitateko Hezkuntza Beharrian Bereziako Masterretik ere.

FEVAS federazioko erakundeen koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitu dugu, ikasketa-aldiarekin lotutako gaien inguruko segimendua egiteko. Urriaren 16an, zerbitzuaren arduradunak eta Elkarteko Batzordeko ama batek FEVASek eta Deustuko Unibertsitateak bigarren hezkuntzako etapari buruz egindako ikerketaren inguruan antolatutako eztabaida-jardunaldi batean hartu zuten parte. FEVAS erakundeetako profesionalok, Hezkuntza Saileko ordezkariekin –Isabel Galende, Berritzegune Nagusiko arduraduna– eta esparru akademikoko zenbait aditurekin batera (Delfín Montero, Angeles Parrilla, Javier Tamarit, Gerardo Echeita eta Climent Giné), «La secundaria a examen» dokumentua aztertu genuen.



Gurutzeko Alabak ikastetxeko gelako kideak (Erreterria)



I.- ZERBITZUAK

1.3.- EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

■ Aurtengo honetan **103 pertsonak** jaso dute gure zerbitzu honen laguntza, eta guztira **26 langile** izan ditugu.

■ Izan ere, bi profesional berri iritsi zaizkigu, barne-igoerako prozesu baten bidez. Profesional horiek ongi ezagutzen zuten zerbitzuaren baliabideen funtzionamendua, aurretik hainbat ordezkapen egin baitzituzten.

■ Aurtengo berritasun handiena Benta Berriko Komunitatean Integratutako Unitate berria ireki izana da, horrek aukera eman baitu zerbitzua berrantolatzeko eta zentroen, taldeen eta profesionalen osaera aldatzeko.

hango malgutasuna eta proposamenak bat datoz «zahartze aktiboaren» printzipioekin.



Eguneko zentroko gazteak, Ekobaratzean lanean

■ Aipatu beharreko beste hobekuntza bat Zabalegin geure erabilerarako utzi diguten **Ekobaratzea** da. Kutxa Ekoguneak sortua da, hainbat udalekin lankidetzan Gipuzkoako zenbait udalerritan hedatutako Baratze Parkea Sarearen barruan. Hainbat Eguneko Zentroko eta Unitateko hiru talde ari dira Ekobaratzera joaten, laborantza-irizpide ekologikoak errespetatuta baratzezaintzan aritzera.

■ Urte honetan, hainbat Lanbide Heziketako ikastetxetako eta unibertsitateko

12 ikaslek prestakuntza-praktikak egin dituzte gurekin, eta beren ebaluazioan eskerrak adierazi dituzte zerbitzuko praktiketan aritzean burututako jarduerarengatik.



Eguneko zentroko talde batek Irantzura (Nafarroa) egindako ateraldia

■ Era berean, garrantzitsua da Oriamendiko Eguneko Zentroko **Zahartze Unitatea** sendotu dela nabarmentzea. Oso ondo funtzionatzen duen zentro bat da, eta



1.4.- ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Aurten pertsona kopuru berak jarraitu du gure zerbitzua erabiltzen, ez baita erabiltzaile berririk sartu. Itxaron-zerrendan jarraitzen duten familiei **asteburuko egonaldi-programa bat** eskaini diegu, **gure etxebizitzetako hirutan** (Goizalden, Berion eta Azkorten), pertsona bakoitzaren profila etxebizitzarik egokieneko taldera egokitzeko helburuz. Asteburu bakoitzean lau familiari eskaintzen zaie asteburuko egonaldi hori, familiak eta Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak adostutako maiztasunarekin.

Arretaren barruan garrantzi handiena duen alderdietako bat **osasun-alorra** da, zalantzarik gabe. Bi esku-hartze modu daude. Lehenengoa prebentzio-lana da, eta aztertu beharreko anomaliarik edo sintomarik baden detektatzeko proben bidez gauzatzen da. Nagusiki, analisisiez, erradiologia-probez, odontologiaz, podologiaz eta elikadura-jarraibideei inguruko gomendioez ari gara. Bigarren esku-hartze modua gaixotasun edo ebakuntza zehatzen segimendua da, batez ere neurologian eta familia-medikuntzan. Esan beharra dago guztira **545 esku-hartze gauzatu direla urte osoan zehar**.

Etxebizitza bakoitzean proposatutako jardueren artean, 2015 honetan Senda Viva parkera egindako ateraldia azpimarratu nahiko genuke, udan erakundeak antolatutako opor-programez gozatu ezin

duten pertsonak parte hartu ahal izan baitzuten jarduera honetan. Horrelako jarduerak egiten direnean, poztasun-maila handia izaten da beti.

Aisialdiko jardueren ildo horretan bertan, komunitatean antolatutako jolas-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitu da; arrakasta handiena duten jarduerak dantza, eskulanak eta spinning-a dira. Uda honetan, uztailen, piraguismoa egin da larunbat goizetan Kontxa hondartzan.



Zugarramurdi leize-zuloetara egindako ibilaldia

Urtero bezala, instalazioetan hobekuntzak egiten jarraitu dugu; zehazki, etxebizitzetako altzariak, pintura, lastairak eta ohe artikulatuak berritu dira. Astero instalazioetan mantentze-lanak egiteko hitzarmen bat sinatu dugu, eta alor garrantzitsu horretan hobetzeko oso lagungarria izaten ari zaigu.


Azkenik, esan beharra dago **Bizitza Proiektua aplikazioaren garapena eta hedatzea** funtsezko lanabesa dela, eta bertan erregistratzen ditugula, banaka, pertsona bakoitzaren bilakaera- eta segimendu-alderdiak, alorrik garrantzitsuenetan.



1.5.- FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA ELKARTZE EKINTZAKO ZERBITZUA

Aurten, GAUTENaren Familiei Laguntzeko Zerbitzuak **bi hobekuntza garrantzitsu** izan ditu. Alde batetik, **ATSEDEN programaren finantzaketa handitu da**, eta horrek hobekuntza handia ekarri dio programaren garapenari. Halaber, **taldearen egitura hobetzea lortu da, psikologo-profileko hirugarren pertsona bat gehituta** (Maidier Iparraguirre). Bi hobekuntza horiek gauzatzeko, funtsezkoa izan da Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak finantzaketa handitu izana.

Zerbitzuko aldaketa horiek baliagarriak izan zaizkigu hura berregituratzeko, eta hala **FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA ELKARTZE EKINTZAKO ZERBITZUA** izena hartu du. Zerbitzuaren ikusmolde berri horretan **pertsona guztiei eta haien familiei** helarazi nahi diegu **gure laguntza**, laguntza gehien behar dutenak barne hartuta eta **laguntza-premia txikiagoa duten profilentzat ildo berriak irekita**, baita elkartze - dinamizazioari dagokion guztian ere.



ATENEASP antzerki taldearen emanaldia
Lugaritzen

Zerbitzuaren beste berritasun bat Bidasoako eskualdean aisialdi-jardueretan egin ahal izan dugun esku-hartzea da. Esku-hartze puntuala izan da, horretarako lortutako finantzaketa zehatz bati esker egina. Aldundiak berak eskatuta egin dira jarduera horiek eta, horrela, asteburu eta



URDINDUZ 2015 dela-eta Zumarragan
antolatutako kontzertua

udaleku irekiak antolatu ditugu Irunen eta Hondarribian artatutako pertsonentzat.

Zerbitzuak ohiko jarduerak burutzen jarraitu du. Familiei laguntzeari dagokionez, **«GURASO ESKOLA»** nabarmendu nahi dugu, Familien Prestakuntzarako Programa, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baita.

Pertsonei laguntzeari dagokionez, **Gizarteratzeko eta Gizartean Parte Hartzeko jardueraz** gain (aisia eta astialdia), laguntza-premia txikiagoa duten pertsonentzat esku-hartze ildo berriak ireki izana nabarmendu nahi genuke, bereziki eskola- eta lanbide-orientazioari dagokionez.

Elkarteari laguntzeari dagokionez, familientzat antolatutako jardueraz gain, erakundea hobera egiten ari da komunikazioaren alorrean, **sare sozialen bultzadari esker** eta gure elkartekideekiko komunikazio-ildoak hobetuta.

2.- 2015. Urteko Mugarriak



FAMILIEN POZTASUN MAILA EZAGUTZEKO INKESTAK

2015ean zehar, familien poztasun-maila ezagutzeko inkestak egin ziren Diagnostiko eta Tratamendu, Hezkuntza eta Etxebizitza Zerbitzuetan; emaitzak oso onak izan ziren.

Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

Inkestako item guztien batez besteko aritmetikoa 7,9 puntu da, 0tik 10erako eskalan.

Hezkuntza Zerbitzua

Inkestako item guztien batez besteko aritmetikoa 7,8 puntu da.

Etxebizitza Zerbitzua

Inkestako item guztien batez besteko aritmetikoa 8,6 puntu da.

Hiru inkestetako puntuaziorik handiena «Giza Eskubideak» alorrari dagokio, 9,1 punturekin.



ASPERGER SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ASPERGER SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA zela-eta, Príncipe zinemetan «**PLANETA ASPERGER**» filma proiektatu zuten. Regina Cortés kidea dugu protagonistetako bat, eta ondoren mahai-inguru batean hartu zuen parte.




Regina Cortés-ek filma eman ondorengo mahai-inguruan parte hartu zuen



2.- 2015. Urteko Mugarriak

ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN JARDUERAK

Etxebizitza bateko taldea GBCren saskibaloi-partida bat ikustera joan da. Etxebizitza Zerbitzuan hainbat jarduera egin dituzte: surfa, kirola, ateraldiak,... Horrek esperientzia- aberastasun handia eman die zerbitzu horretan dauden pertsoneri.



Etxebizitza Zerbitzuko gazte-talde bat GBCren partida bat ikustera joan zen

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

2015ean prestakuntza-plan bat gauzatu da; horretarako, erakundearentzat eta zerbitzuentzat interesgarriak diren gaiak identifikatu dira, eta profesionalak jasotako eta Prestakuntza eta Trebakuntza Prozesuak kudeatutako eskakizunak baliatu dira.

Horien guztien artean, profesionalak ondoen baloratutakoak nabarmendu nahiko genituzke:

- Herstura-nahasmenduak (Isabel de Paula)
- Elikadura-nahasmenduak (María Llorente)
- Portaera-arazoak, jokabide-laguntza positiboa (Jesús García, Gautenako psikologoa)
- Jolasaren garapena (Vanesa Casares)
- Gaitasunen inguruko prestakuntza (FEVAS)
- Hannen metodoa, Denver metodoa eta Familian Zentratutako Plangintza



FAMILIEN TOPAKETA

Martxoaren 8an eta 9an familientzako topaketa bat antolatu zen Arantzazun. Topaketa bizia eta oso aberasgarria izan zen parte-hartzaile guztientzat.



GURASO ESKOLA

Martxoaren 26an eta GURASO ESKOLA programaren baitan, Joaquín Fuentes doktoreak hitzaldi bat eman zuen Zumarragan, «Eguneraketa autismoaren inguruko ikerkuntzan» gaiari buruz.

GURASO ESKOLA programak 10 hitzaldi eta 2 lantegi izan ditu urtean zehar, honako hauen eskutik, besteak beste: Inge Lazkoz, Ana Osa, Félix Arregi, Olatz Aizpuru, Agustín Illera, Diego Granados notarioa, M^a José Goñi, José Luis Basoko (Atzegi Tutoretza Fundazioko zuzendaria) eta Itxaso Martí.





2.- 2015. Urteko Mugarriak



ETIKARI BURUZKO HOBEKUNTZA TALDEA

Etikari Buruzko Hobekuntza Taldeak, GAUTENAKo zerbitzueta profesionalak osatuak, jarraitu du esku-hartzearen ardatz garrantzitsu hori garatzen. Azpimarratzekoak dira zerbitzu guztietako profesionalentzat antolatutako prestakuntza-ekintzak, «**Tratu txarrak**» eta «**Konfidentzialtasuna**» gaien inguruan.

Halaber, nabarmendu beharra dago aurten **bigarren ebaluaketa etikoa** egin dela **GAUTENaren zentro guztietan**. Horretarako, erabilitako lanabesean, zeina taldeak berak sortua baita, hobekuntzak egin behar izan dira. Balioespen-emaitez prestakuntzan, dokumentuetan eta abarretan esku hartzeko ildo berriak gehitzeko balio dute.

Datorren urterako, **ardatz hori familien eta lagundutako pertsonen beraien partaidetzara zabaltzea** da helburua.

URDINDUZ 2015

Oraingoan **URDINDUZ** Zumarragan antolatu zen. Nabarmentzekoa da apirilaren 19an egindako kontzertua, bertan estreinatu baitzen «**Zentzumenaren burbuilak**» lana, Ferrer Ferrán artistak GAUTENarentzat sortua. Era berean, aipatzekoa da ere apirilaren 26an Antiora egindako igoera. Gure neska-mutilek, gainera, Euskal Herriko Itzuliko Zumarragako etaparen hasierako zinta moztu zuten.



Zumarragako zenbait gaztek Euskal Herriko Itzuliko etaparen hasierako zinta moztu zuten



AUTISMOA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BISITA DANIMARKAN

Apirilean, GAUTENAKo profesionalek eta familieek osatutako talde batek AARHUSEko (DANIMARKA) SPECIALOMRADE zerbitzuak bisitatu zituzten.

Danimarkako **lan-bisitaldiaren xedea** hiru helburu nagusitan zehaztu zen, oraingo honetan:

Alde batetik, Danimarkan autismoa duten pertsoneri ematen zaien erantzunarekiko **alderaketa orokor bat** egitea.

Bestetik, AEN duten pertsonen **zahartzea** nola lantzen ari diren ezagutzea.

Eta azkenik, **AEN duten pertsonen artean autonomia handienekoei eta, bereziki, funtzionamendu-maila handiko autismoa eta Asperger sindromea duten pertsoneri laguntzeko** zer-nolako programak eta politikak dituzten ezagutzea.



Maiatza

EOS-EN KONTZERTUA

Maiatzaren 28an Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu batez gozatzeko aukera izan genuen berriz ere, orkestrak FEVASekin daukan lankidetzari esker.



2.- 2015. Urteko Mugarriak

BENTA BERRIKO KOMUNITATEAN INTEGRATUTAKO UNITATE BERRIA

Maiatzean hasiera eman zitzaion **GAUTEN**aren Eguneko **Arreta Zerbitzuko Komunitatean Integratutako Unitate berri** bati. Unitate berria BENTA BERRI auzoan dago, kokaleku ezin hobean, komunitate-baliabidez inguratua.



Benta Berri unitatearen barrualdea



ATENEASP ANTZERKI TALDEA

Ekainean, gure **ATENEASP** antzerki taldeak arrakasta handia izan zuen **Bartzelonako Arte Jaialdian**, Accesit bat eskuratu baitzuen **JOSEP CLUSA** sarian. Ekainaren 26an, Donostiako ohiko antzezpena egin zuten.



Gure antzerki taldeak arrakasta handia izan zuen Bartzelonan



GAUTENAREN PARTE HARTZEA EHU-KO IKASTAROETAN

Uztailaren 20an, 21ean eta 22an, GAUTENAKo profesionalek «AEN DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK: ORAINA ETA ETORKIZUNA» ikastaroa eman zuten, EHUK antolatutako UDAKO IKASTAROEN barruan.

GAUTENAREN UDALEKU IREKIAK

Uztailean zehar, GAUTENAREN Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak Udaleku Irekien Programa antolatu zuen. **72 haurrek eta gaztek hartu zuten parte, 40 monitorerekin batera.** Programa Donostian, Irunen, Hondarribian, Andoainen, Zarautzen, Arrasaten, Elgoibarren eta Zumarragan gauzatu zen.

LANGILEAK

2015eko uztailean barne-igoera bat egin zen: 3 langile berri hautatu ziren. GAUTENAKo langileak (**217**) honela zeuden banatuta abenduaren 31n:

LANGILEAK 2015			
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Zuzendaritza	1	0	1
Teknikariak	1	8	9
Hezkuntza	4	77	81
Eguneko jardueren zentroa	9	22	31
Etxebizitza Zerbitzua	24	41	65
Administrazioa	0	3	3
Ofiziozko profesionalak	6	8	14
Arduradunak	5	2	7
Laguntzako monitoreak	2	4	6
GUZTIRA	52	165	217



2.- 2015. Urteko Mugarriak



UDALEKUAK

Abuztuan zehar, GAUTENAREN Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak Udaleku Programa antolatu zuen, eta bertan **150 haurrek, gaztek eta helduk hartu zuten parte, 90 monitorerekin batera**. Programa 7, 12 eta 15 eguneko txandatan gauzatu zen, Donostian, Altsasun, Donezteben, San Asension eta Lizarran.



OBRAK AIETEN

Abuztuan, Aieteko eraikinaren lehen solairua birmoldatu zen. Solairu horretan, nagusiki, Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuko eta Hezkuntza Zerbitzuko profesionalen bulegoak daude kokatuta, bai eta bi bilera-gela ere.




IKASGELA EGONKOR BERRIA ERRETERIAN

Irailan GAUTENAREN Hezkuntza Zerbitzuko Ikasgela Egonkor berri bat jarri zen abian. Erretereriako GURUTZEKO ALABAK ikastetxean jarri da, eta 18. ikasgela da.

GAUTENAKO KIDE BERRIEI HARRERA

Irailaren 29an bilera bat egin genuen azken hilabeteetan GAUTENARA etorritako familia guztiei harrera egiteko.

Horrez gain, Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak aktibo mantentzen ditu familia-taldeak, elkarteko familientzako topaguneak eskaintzeko helburuarekin.



ELKARGIZA

ELKARGIZA sortu zen, GAUTENAREN Hezkuntza Zerbitzuaren, Eguneko Arreta Zerbitzuaren eta Etxebizitza Zerbitzuaren erabiltzaileek erabiltzaileentzat egindako aldizkaria.



ELKARGIZA aldizkariaren lehen zenbakia

AUTISMO GINEBRAREN BISITA (SUITZA)

Asko dira gura lana ezagutzeko interesa duten erakundeak. Autismo Ginebrak urrian egindako bisitaldia nabarmendu nahi dugu; izan ere, elkarte horretako arduradun nagusiek, Suitzako Parlamentuko kide batekin batera, Gipuzkoako gizarteratze-esperientziak ezagutzeko aukera izan zuten. Alde batetik, gela arrunt bateko ikasle baten esperientzia ezagutu zuten, eta,



2.- 2015. Urteko Mugarriak

bestetik, ikasgela egonkorretako esperientzia. Bisitaldi horretan ondorioztatutakoak Suitzako Hezkuntza ministroari aurkeztu dizkiote, bertan gurearen gisako sistema bat ezartzeko asmoarekin.



Genevako taldearen bisitaldia GAUTENAREN Ikasgela Egonkor batean

HITZALDI ZIKLOA

Urrian, GAUTENAK AUTISMOARI BURUZKO MINTEGI ZIKLO bat antolatu zuen berriz ere. Oraingo honetan, hauek izan ziren hitzaldiak:

- Urriaren 6an, «**Laguntza txikia behar duten AENDun pertsonak**», MERCEDES BELINCHÓN (Psikologian doktorea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean)
- Urriaren 13an, «**Zahartzea**», ANTONIO AGUADO (Psikologian doktorea)
- Urriaren 20an, «**Desafio-portaerak**», JESÚS GARCÍA (GAUTENAKo psikologoa)



PRESTAKUNTZA, KIROL EGOKITUAREN FEDERAZIOAREN ESKUTIK

Pablo Marañón, Agustín Illera eta Jimmy Brosa partaide izan ziren «Kirola adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonentzat» mahai-inguruan, Kirol Egokituaren Federazioak antolatutako ikastaroaren barruan.

GAUTENAKo profesionalek esku-hartze ugari egin zituzten hainbat ikastaro eta biltzarretan.



KALITATEA

Nabarmendu nahi dugu aurten ere, azken hamar urteetan egin izan den moduan, **erakundearen ebaluaketa** bat egin dela **EFQM ereduaren arabera** kanpoko aholkulari baten laguntzaz, eta 500 puntu baino gehiagoko puntuazioa lortu dugula, hau da, EUSKALIT Kalitatearen Euskal Agentziak bere kanpo-ebaluaketan ematen zuen urrezko Q haren baliokidea.

FEAPS kalitate-ereduan (Erabateko Inklusioa du izena orain) lanean jarraitzen dugula aipatu beharra dago, datozen urteetan Bikaintasun maila eskuratzeko xedez. Erakundea kalitate-ereduetara egokitze prozesuak behar bezala barneratu dira, gizartean ondo onartuta dauden ereduen araberrako ikuspegi orokor bat eskaintzen digute erakundeaz eta etengabeko hobekuntzari begirako jardunbide profesional bat proposatzen dute, GAUTENAREN politikaren oinarritzko hiru ardatzak errespetatuta: bizi-kalitatea, etika eta erakunde-garapena.



2.- 2015. Urteko Mugarriak



I+G+b

Ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuetako lankidetzari dagokionez, 2015ean zehar GAUTENAK **GAIArekin** lanean jarraitu zuen (Euskadiko informazio- eta komunikazio-teknologiaren arloko enpresen klusterra), bi ildotan: **IKUSGIZA proiektua** (Autismoaren Espektroko Nahasmenduak dituzten pertsonen eskubideetan oinarrituta lan egiteko aplikazio bat), eta **LAGUNGIZA aplikazioa**, norberak kudea dezakeen intuiziozko bizi-proiektu bat ahalbidetuko duen aplikazio baterantz aurreratzeko asmoz, haren bidez, ahal den neurrian, AEN duten pertsonen beraiek, beren familiek eta beren erreferentziazko profesionalak parte hartze aldera.

Bestalde, AEN duten pertsonen Estatuko erregistro bat (RETEA) abiarazteko proiektuko alde aurretiko azterketetan parte hartu genuen.

2016-2019 PLAN ESTRATEGIKOAREN prestaketa

2015. urtea **GAUTENaren hirugarren Plan Estrategikoko** azken urtea izan da. Ohi dugun bezala, Plan Estrategiko bakoitzeko azken urteko bigarren seihilekoan barne-gogoetarako prozesu bat jarri genuen martxan, familien eta lan-talde profesionalaren ordezkariekin.

Oraingo honetan, **Foku Talde bat sortu zen, familien ordezkariak – Zuzendaritza Batzordeko kideak zein kide ez direnak– eta profesionalen Batzorde Zuzendariaren ordezkariak osatua**. Taldea, zortzi pertsonak osatua, sei aldiz bildu zen 2015eko uztailaren eta abenduaren artean. Hainbat ordutako baterako analisiei esker, familien eta profesionalen beharrezkoen eta horiei eman beharreko erantzunei buruzko adostasuna eguneratu ahal izan zuten. Foku Taldearen ekarpenak Zuzendaritzako Batzordera eta Batzorde Zuzendarira eramanez ziren bitan, haietan ere gogoan hartze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko goi-arduradunak helarazi zitzaizkien 2016-2019 Plan Estrategikoa ahalbidetu zuen lanaren eduki nagusiak, eta hark 2016ko lehen hilabeteetan «**ibilbide-orri**» bat ezartzeko konpromisoa hartu zuen, bertan adierazita zer laguntza nagusi esleitzea aurreikusten duen Gizarte Politikako Departamentuak 2016-2019 aldian GAUTENari.

2016-2019 Plan Estrategikoak **hiru estrategia-ildo nagusi** identifikatu ditu:

«Pertsonak, familiak eta gizarteak»

Elkarteak AEN (AGD) duten pertsonen eta haien familiei erantzuna emateko duen gaitasuna areagotzea eta zerbitzuen eta esku hartzeko ildoen eskaintza zabaltzea, laguntza-beharrezkoen profiletara egokituz eta banakako laguntza-programen bidez, AEN (AGD) duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitateari onena bermatzeko helburuz. Horretarako, hurbilketa etikoak eta eskubideetan oinarritutako baliabideak dira, eta AENak Gipuzkoako gizartearen presentzia izatea bermatzeko duten gizarte-inpaktuko lehenak ezarriko dira.



«Laguntza-zerbitzuak»

Plaza berriak eta laguntza-lerro berriak irekitzea, AEN (AGD) duten pertsonen eta euren familien premiei bizitza-ziklo osoan ahalik eta erantzun zabalena ematen zaiela bermatzeko.

«Erakunde-garapena»

Kalitate-ereduen, pertsonen kudeaketaren, ezagutzaren kudeaketaren eta l+G+b-ren aplikazioan sakontzea eta aurreratzea, inguruko beste erakundeekin lankidetzan.

SUPER AMARA KONTZERTUA

Abenduaren 11n SUPER AMARAK GAUTENAREN alde antolatutako ongintzazko kontzertu hunkigarri bat egin zen KURSAALen, eta PALOMA SAN BASILIO eta ABESBATZAKO MUTILAK izan zituen protagonista.



Super Amararen kontzertu solidarioak Kursaleko entzun-aretoa bete zuen

GABONETAKO HAUR PARKEA

Abenduan, gainera, Gabonetako zenbait haur-parketan izan ginen, ateak ireki baitzituzten desgaitasuna duten haurrentzat: Zarautzen, FICOBA eta KURSAALen (LANKOR), hain zuzen.

3. URTEKO KONTUAK

3.1. Egoeraren balantzea

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)
EGOERAREN BALANTZEA
ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA
(eurotan)

AKTIBOA		2.015	2.014	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2.015	2.014
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		4.448.144	4.564.568	A) ONDARE GARBIA		4.563.158	4.756.564
I. Ibilgetu ukiezina		716.827	768.470	A-1) Fondo propioak		298.964	294.313
III. Ibilgetu materiala		3.692.320	3.787.182	I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial		294.313	292.572
VI. Epe luzeko finantza-inbertsioak		38.997	8.916	IV. Ekitaldiko soberakina		4.651	1.741
				A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		4.264.194	4.462.251
B) AKTIBO KORRONTEA		1.135.200	1.217.667	B) PASIBO EZ-KORRONTEA		65.972	95.986
III. Erabiltzaileak eta berezko inharduerako zordunak		50.964	62.697	I. Epe luzeko hornidurak		65.972	95.986
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		578.889	454.638	C) PASIBO KORRONTEA		954.214	929.685
VII. Epe laburreko periodifikatzeak		20.839		II. Epe laburreko hornidurak		22.026	32.178
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioideak		484.508	700.332	VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		928.313	897.507
				VII. Epe laburreko periodifikatzeak		3.875	0
AKTIBOA GUZTIRA		5.583.344	5.782.235	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		5.583.344	5.782.235

3.2. Eraitzen kontua

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)

ALDU-IRABAZIEN KONTUA
2.014KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA
(Euro-unitateak)

			2.015	2.014
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak			8.554.576	8.313.388
7. Jardueraren bestelako sarrerak			1.591	5.501
8. Pertsonal-gastuak			(6.431.673)	(6.316.183)
9. Ustiapeneko bestelako gastuak			(2.127.833)	(2.023.004)
10. Ibilgetuaren amortizazioa			(287.787)	(325.418)
11. Ekitaldiko emaitzari egotzitako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak			292.057	342.766
14. Bestelako emaitzak			9.095	10.083
A) JARDUERAREN EMAITZA			10.026	7.133
14. Sarrera finantzarioak			5	96
15. Gastu finantzarioak			(5.380)	(5.488)
B) ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA			(5.375)	(5.392)
C) ZERGA AURREKO EMAITZA			4.651	1.741
D) EKITALDIKO SOBERAKINA			4.651	1.741







GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

C/ Francisco López Alen, 4
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Apartado 1000
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943 21 53 44 / 21 52 49

Fax: 943 21 52 39

info@gautena.org

www.gautena.org